



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2017ko abendua · 334. alea

TOKIKOM



# ITZAINAK Afizioari tiraka



## AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Elena Beristain
- 6 Begira** Elurraren etorrera
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 12 Argazki bidez** Abenduko argazkiak
- 14 Plazan bazan** Umeendako jolasak
- 18 Erreportajea** Euskaraldia
- 22 Kirola** Futbol torneoa
- 24 Kultura** The Crazy Wheels Band
- 26 Nondik nora** Axlór Elortza
- 28 Sakonean** Itzainak
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3 Neuretik** Neuretik Garazi Arizaga *Aurtengo eskaera Errege magoai*
- 16 Gutunak** EH Bildu / Pil-pilean
- 16 Hausnarketa** Hizkuntza ohiturak
- 17 Zir(r)ika** Gabonak
- 17 Puntua** Soufian Benzian *Al Quds*



**Pil-pilean**  
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus) • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkartea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Telefonia

943 75 13 04  
**Erredakzioa** Ubane Madera  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
[egoitz@pilpilean.eus](mailto:egoitz@pilpilean.eus)

### Publizitatea

[publizitatea@pilpilean.eus](mailto:publizitatea@pilpilean.eus)  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Azala** Fernan Oregi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea

### Inprimategia

Gertu Koop.  
**Banaketa** Pil-pilean Ekoizpena  
**Lege Gordailua:** SS-537-2000  
**Tirada:** 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Aurtengo eskaera

## Errege magoei



Garazi  
Arizaga

Gabon, beste behin. Urtero bezela, eguneroko honen azken orrixetara heltziakin batera, heldu da urtiaren amaiera eta, beraz, hasi naiz yada buruari eragiten aurren eskatuko dittudan oparixak aukeratzeko.

Ze urduri nagan! Lehenengo Mari Domingi etorriko da menditik, Olentzero lagun dabela. Eurekin kalejira egin eta oindio idatzi barik daukaten eskutitza emongo dotset, gau hortan etxera etorri daittezen, ahal dittutzenek ekartzera (merezi dittutela uste badabe behintzat!)

Egun batzuk beranduago, ostera, hiru bisitari etorriko dira urrinetik. Horrek be herriko kalietan zihar ibili eta erregalo bana emango doskue eurengana gerturatzen garanori, gure eskutitzen

truke! A ze jatorrak danak! Aurren, pentsatu dot Errege magoeri nire lagun Anentzako erregalua eskatzia, azken hiru urtietan ezin izan dotse-eta eskatutakua ekarri. Egixa esan, ez dakit zegaittik, oso lagun ona da-ta! Bada, kalejira egun horretan jasotakua izango da nere aurtengo Erregien opari bakarra. Espero dot iazkua baino apur bat gustokuagua izatia, gogoratzen dot-eta makilatzeke kit bat jaso nebala, harekin zer margotu ondo ez nekixala.

Ilaran postu bat aurrerago egon izan banintz, Mikeli baino, neri emongo zosten baloia, seguru! Ala ez? Egixa esan, urtero-urtero gertatu jata antzeko zeozer. Nik

baloia nahi izan arren, apainketarako kitak, panpinak eta printzesa istorioak tokatu jataz eta, beraz, dagoeneko hasitta nago pentsatzen ilarako kokapena baino, badala beste arrazoiren bat nahi doten hori inoiz neregana ez iristeko. Burura datozkit oin, familixan, kalia, nahiz eskolan entzundako: “ez dozu nahixago neskekin jardutia Maite?” edo “arropak hain zikin ekarrira, printzesa bat baino mutila dirudizu!”. Bai, bada hor zeozer, batenbat, ondo ulertzen ez doten arren, lagun ez dotena. Nere baitan hasarria piztu eta egunero-egunero gaizki sentiarazten nabena, inguruarekin arrotz.

Orrialde honetatik aparte, inoiz ez dot konpartitu hau beste inorekin. Beldur naiz, gainerakuak, eta zela ez, Errege Mago handi eta eredugarrixak ez ete daben arrazoi eukiko. Agian ez neuke baloiaren zain egon bihar. Agian egixa da horrelakuak ez dirala neretako? Nahaspila itzela daukat azkenaldixan. Maite daukat izena eta saskibaloia dot maite. Gustuko dittut Errege maguak, baina ez nago seguru alderantziz be hala dan. Maite banabe, zergatik zigortzen nabe urtez urte? Diñue gure ametsei jarraitu bihar dotsegula. Beharbada, adinekuak izanda, komeniko da naizen hori altuago oihukatzea, entzun deixen?

**“Aurren, pentsatu dot Errege magoeri nire lagun Anentzako erregalua eskatzia, azken hiru urtietan ezin izan dotse-eta eskatutakua ekarri. Egixa esan, ez dakit zegaittik, oso lagun ona da-ta!”**

# Elena Beristain Artetxe

TESTUA: **UBANE MADERA** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Lan eskarmentu handiko pertsona da Elena Beristain Artetxe (Zarautz, 1973): langile soziala, administratiboa, soroslea, udaltzaina, dendaria eta gizarte laguntzaile izandakoa, besteak beste. Abuztuaren 16az geroztik, bera da Mesedeetako egoitzako zuzendaria. Soraluzera etortzeko, Donostiako eta Azpeitiako egoitza banatako zuzendari izateari utzi dio.

## Zela halako aldaketa?

Lanposturako aukeraketa prozesuan 100 curriculumetatik gora nirea aukeratu ondoren, hori berori galdetu zidaten, beldur zirelako ea egokituko nintzen askoz proiektu txikiagora. Erantzuna hau da: aipatutako erakundeetan 100 langiletik gora egonda, galdu egiten nuen gustuko dudangileekiko eta erabiltzaileekiko zuzeneko harremana, faltan igartzen nuen hori; batez ere gestio-lana egiten nuen. Bi lagunek eman zidaten lanpostu honen berri, elkarrizketara etorri eta zerbait berezia ikusi nuen.

Oso pertsona intuitiboa naiz. Umetatik. Seguritik ahizpa dudalako jaiotzatik buruko paralsiarekin. Txikitatik bizi izan dut mendekotasunaren gaia, beraz, pentsatzen dut hortik etorriko zaidala pertsonen arteko harremanarekiko zaletasuna, pertsonengan sinestea eta haiekin kontaktua izateko gogoia. Gainera, uste dut halako lanbide emozionalean dabiltzanak gustura egotea lortuz gero, eta haiengan balore jakin batzuk bultzatzea lortuz gero, hemen ikasten dituzten balore horiek euren seme-alabei transmitituko dizkietela, eta, horrela, baloreetan askoz ere aberatsagoa den gizartea sortzen da. Azken batean, honako planteatzen ditudan helburuak nire buruarendako eta gizartearendako planteatzen ditudan berberak dira.

## Zure ikuspuntutik, zela ikusten da Soraluzeko egoitza?

Hemen erabiltzailea eta familia egokitu behar ziren zentroaren dinamikara. Nire filosofia, berriz, hauxe da: gu egokitu behar gara erabiltzaileen beharretara eta gustuetara. Konplikatu dirudien arren, ez da horren zaila. Adibide bat: zergatik oheratu behar dira erabiltzaile guztiak batera eta ez eurek nahi dutenean, esaterako, telebistako saio gustuko bat ikusi nahi badute?

Horrekin batera, pertsona autonomoen ahalduntzea bultzatuko dugu. Hau da, eurek erabakiko dute zela nahi duten guk eurak zaintzea. Eta galera kognitiboa duten pertsonen dagokienez, landuko dira haien biziak historia eta euren gustuak. Familia guztiaren inplikazioarekin. Ezinbestekoa zaigu jakitea euren ohiturak. Euren bizimodua ezagutuz gero, ematen zaien zaintza askoz ere gertukoagoa eta beroagoa da-eta.

Bestalde, oso garrantzitsua da familiak ere zentroan integratzea. Eta hori indartzeko, adibidez, kapera zegoen lekuan jangela egokitu dugu senitartekoez egoiliarrekin bazkaldu-afaldu ahal izan dezaten.

Barrura begira, ekipoan, lan-taldeetan antolatuta lan egiten dugu eta astero batzartzen gara erabiltzaileak baloratzeko. Batzar multidiziplinarrak dira. Helburu orokorrak, indibidualak eta ekintza-plana zehazten dira, eta talde osoak parte hartzen du. Gainera, Alkarrirekin, Gurutze Gorriko eta Nagusilanekeo boluntarioekin ere lan egiten dugu. Orain nahiko gure boluntarioak ere lortzea, ikastetxeren batekin harremanetan jarrita.

Eta kanpora begira, batzarra egin dugu Mendaroko ospitalearekin, bi proiektutan sar gaitzaten: bata hemen ospitaleratuta egoteko aukera, ospitalera joan nahi ez dutenendako; eta, bestea, patologia kronikoak dituztenei zuzeneko arreta egoitzan ematea, larrialdietara-eta joan barik. Azken batean, nagusien egoitzetan, garapen handia izaten ari dira aipatutako arloei dagokienez.

## Aldiz, gehienetan, egoitzara etortzea azken aukera da...

Soraluzek pertsona nagusi asko ditu eta badakigu askok ez dituztela egoitzak batera gustuko. Nahi duguna da zentro hau irekia izatea; gertu nago jakin-mina... dituen edozein herritarri ateak zabaltzeko, bertako lan-taldea ezagutu dezan, ikus dezan zela funtzionatzen duen. Eta, batez ere, jendea ulertarazteko egoitza ez dela nagusiak "aparkatzeko" lekua, baizik eta haien bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duena, hemen norbera dela erabakiak hartzen dituen, erabiltzailea, alegia. Orain inguruko jende asko dago, pasoko egoitza izan da. Baina bagabiltza ikusten kanpokoek joateko aukera izanda ere, ez dutela joan nahi. Nahi dugu erreferentziatzeko egoitza izan; pertsonarengan zentratutakoa, bertako langileak ere zaintzen dituen.

Gure langileei pertsona nagusiekin lan egitea gustatu egiten zaie; hori ikustea oso zaila da eta igarri egiten da. Zerbitzu osoa dugu: erizain-taldea, medikua, langile soziala, psikologoa, animatzaile sozio-kulturala eta laguntzaileak, eta terapia ere egiten dugu txakurrekin. Horiek dira oinarrizko zerbitzuak. Horiez gain honakoak ere eskaintzen dira, gehiagarri gisa: podologia, ile-apaindegia, fisioterapeuta, dentista, senideekin jatorduak egin ahal izatea, langileek bertan jatorduak egiteko aukera. Bestalde, laguntza-teknikoa eta aholkularitza-ematen dugu. Gainera, gure lehenasuna da bertako, herriko, jendearekin ematea zerbitzu guztiak. Zerbitzuren bat ez bada herriko jendearekin ematen da ez dugulako aurkitu.

*“Nire filosofia da gu  
egokitu behar garela  
erabiltzailearen  
beharretara eta  
gustuetara”*

ELENA BERISTAIN ARTETXE



# Elurraren etorrera

ARGAZKIA: MIKEL VALERO TESTUA: UBANE MADERA

Dotoretasuna, isiltasuna eta handitasuna; hori guztia transmititzen du Mikel Valeroren argazkiak. Abenduaren 3an ateratakoa da, eta, zortzimilako mendiren baterako espedizioa gogora ekar lezakeen arren, Hirukurutzetako gailurrerako bidea da erretratuan agertzen dena. San Andrestik hasita egin zuten bide hori Josu Martinek eta Mikel Valerok, eta bat egin zuten bidean Axlor Elortzarekin ere. Valororen hitzetan “toki batzuetan 70 zentimetro rainoko elur-geruza zegoen. Izan ere, San Andrestik gora izotz eta elur ugari zegoen”.





# Kiroldegiko terraza txikian solairu bat gehituko dute, 500.000 euro inbertituta

5.014.674 euro. Horixe da Sorauluzeko Udalak 2018rako izango duen aurrekontua. Iazkoaren aldean, nabarmen handiagoa da kopuru hori, %13,98 handiagoa. Beraz, nabarmen handiagoa izango da Udalak inbertsioetara bideratuko duen diru-kopurua ere: 954.451,94 euro, iazkoa baino %102,32 handiagoa, hain zuzen ere.

Martitzeneko osoko bilkuran onartu zuten Udal Gobernuaren proposamena, aldeko sei botorekin (EAJ eta PSE-EE) eta kontrako bost botorekin (EH Bildu). Are gehiago, azken horiek emendakin partziala aurkeztu zion Udal Gobernuaren aurrekontuari, eta gobernuaren zein oposizio ordezkarierako arteko eztabaida politikoa beroa izan zen. Oro har, EH Bilduk salatu zuten ez dutela tarterik izan “ekarpen, moldaketak egiteko”. Gobernuak kideek horri erantzunez, gogora ekarri zuten Ogasun Batzordean izan zutela 15 eguneko epea euren ekarpenak egiteko.

Hala ere, aurrera egin zuten aurrekontuaren proposamenak. Eta Iker Aldabazabal alkateak zera adierazi zuen: “Bi urte luzeotan herriko beharrak eta gabeziak ondo aztertu ondoren, gure asmoa izan da behar horiei bide ematea 2018ko aurrekontuan, inbertsioen bitartez. Benetan proiektu indartsua izango da”.

## Inbertsio izarra: kiroldegia

Inbertsio horien artean, handiena eta esanguratsuenak da udal kiroldegirako iragarritakoa. 500.000 euro bertara bideratuta, kiroldegiko terraza txikiari solairu bat gehitu egingo diote; horrela, kiroldegia bera handitu egingo dute. “Herri erdi-erdian dago kiroldegia; Gaztelupetik gertuen dagoen terraza laua da, apenas erabiltzen da eta kiroldegia dituen beharrak



aztertuta, Udal Gobernuak terraza horri solairu bat gehitzearen aldeko apustua egiten du; horrek 500.000 euroko inbertsioa eskatzen du. Horrekin herrian dagoen kulturarako eta kirolerako espazioen defizitari aurre egitea da asmoa. Gaur egun, kiroldegiko areto guztiak beteta daude eta erabili egiten dira. 500.000 euroko inbertsio hori egiteko, erdia, 250.000 euro, Gipuzkoako Foru Aldundiak emango du zuzeneko diru-laguntza modura, akordio politikoa bati esker. Gainerakoa, Udalak jarriko du. Iker Aldabazabal zehaztu zuen proiektua idatzitakoan zehaztuko dutela espazio berriaren erabilera”.

Kiroldegian egingo dutenaz gain, bestelako hainbat inbertsioen berri ere eman zuten udalbatzarrean. Hona hemen aipatutako batzuk: 162.032 euro bideratuko ditu Udalak Errabal kalea urbanizatzeko; gizarte politiketara 56.260 euro bideratuko

## Oposizioaren irakurketa

EH Bilduk emendakin partziala aurkeztu zion aurrekontuari. Sei arrazoiengatik, Unai Larreategiren esanetan. Nagusia da ez dietela “marjinarik utzi ekarpen, moldaketak egiteko. Hain da exajeratua marjinarik eza, ezen hiru plenotan hartutako konpromiso bat ezin beteta ere gelditu direla: etxebizitza planera bideratzea etxe hutsen errekar gutik jasotako dirua”. Kezka helarazi zuen, berriz, gastuak handitzen doazelako, eta langabezia-tasa “kronifikatu” egin delako (horri aurre egiteko neurriak faltan igarri dituzte) eta, uste dute inbertsio handiak udalerrirako “estrategikoak” diren edo errentagarritasun ekonomikoa ekarriko duten proiektuetarako beharko lirakeela.



Kirodlegiko terraza txikiaren gainean eraikiko dute solairu berria.



## Mendigaineko “futbol zelaia” erosi du Udalak

Beste lursail bat erosi du Udalak mendigainean. 26.289 m<sup>2</sup> ditu eta mendigaineko gunerik lauen da, “bertako alerik ederrena” Iker Aldazabal alkatearen esanetan. Metro karratua 0,36 euroan eskuratuta, 9.464,04 euro ordaindu ditu Udalak mendigaineko “futbol zelaiarengatik”. Lursaila eskuratuta, bertako pinudia bota egin dute; izan ere, Udalaren helburua da han belardiak sustatzea eta bultzatzea, “bertako ganadua (zaldiak, behiak, ardiak, orkatzak...) hor gustura egoten delako, laua delako eta belar ona irtetzen delako”, esplikatu du alkateak.

### Balioan jartzen

Edozein modutan, proiektu handiago baten zati da orain eskuratuta duten lursaila. Horrela, azken hiru urtean mendigaineko ia

sei hektarea eskuratu ditu Udalak: “Badihardugu Kakarakate-Hirukurutzeta mendilerroa balioan jartzeko lanketa egiten Elgoibar, Bergara eta Soraluze artean eta Debegesaren laguntzarekin. Apustua da Soraluzeko terrenoen barruan dauden lursailak erosten joatea, esandako moduan, balioan jartzeko. Izan ere, lau alor jarri nahi ditugu balioan: ingurumena, paisajea, ondare arkeologiko-historikoa eta abeltzantza. Ze bultzatu nahi dugu larreak garatzea, ganaduak aukera izan dezan bertan bazkatzeko. Apustu inportantea da, eta erosketa horrekin puzzleko beste pieza bat eskuratu dugu; kasu honetan, lursail inportantea. Hurrengo urtera begira ere ipini dugu beste diru partida bat lursailak erosteko”, dio alkateak.

dituzte, eta, besteak beste, 40.000 euro aurreikusiko dira Hezkuntza Proiekturako.

Baina inbertsioen artean, bada bat, Udal Gobernuaren ustez, herriarendako estrategikoa den proiektu baterako baliatuko dutena, Sologongo zentral-elektrikora. Alkateak esplikatu zuenez, abuztuaren 9az geroztik zentral horren jabe da Soraluzeko Udala. Jakina da zentral horrek argindarra ekoizten duela, gero Udalak saltzen duena. Azterketen arabera, inbertsio batzuk eginda, jardun horren bitartez lortzen den errentagarritasun ekonomikoa handitu egin daiteke. Horregatik guztiagatik, zentralaren jabetza eta haren etorkizuneko erabilera herriarendako estrategiko moduan aurkeztu zuen Udal Gobernuak. Hala, jakinarazi zuen 24.000 euro Sologongo zentralera bideratuko dituela 2018an; 2017an dagoeneko beste 29.000 euro inbertitu dituzte bertan.

## Larrialdietarako giltzak



Larrialdiren bat gertatzen bada, erdigunea zirkulaziora ixten duten piboteak jaitsi ahal izateko sei giltzagune egokitu ditu Soraluzeko Udalak udalerriko beste horrenbeste puntutan, suhiltzaileek erabili ahal izateko. GPS bitartez zehaztuta daude haien kokaguneak, piboteetatik gertu, guztiak ere.

Beraz, suhiltzaileek etorri beharra badute, eta herrian ez bada udaltzainik (domeketan, adibidez) giltzaguneak zabaldu eta bertan izango dituzte gordeta pibote hidraulikoak igo eta jaitzeko giltzak. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu zuen Udalak zerbitzu hori ezartzeko.

# 120 lagunek hartu du kit-a

Hondakinak batzeko sistema berrirako kit eta txartel banaketa, atzo, abenduaren 21ean bukatu zen. Eta ez ditu oso datu baikorrak utzi. Izan ere, 527 etxebizitza falta ziren horiek hartzeko, lehenago apuntatu gabe zeudenak, eta 120 pasa dira bakarrik kita eta txartela eskuratzerara. "Jaso ez dutenak, datozen egunotan udaletxetik pasa daitezke eta Ingurumen teknikari Nekane Jauregiri eskatu", jakinarazi du Zuberua Jauregik, txartelak eta

kitak banatzen ibili den Vermican enpresako langileak. "Horiek guztiek kontuan hartu behar dute edukiontzi grisak zein marroiak erabiltzeko, aurrerantzean txartela beharko dutela bai ala bai", gaineratu du hark.

## Lehenagotik 1.400 baziren

Banaketa berri honen aurretik, 1.428k dagoeneko erabiltzen zuten edukiontzi marroia, 1.405 etxebizitzak eta 23 komertziok.

# 2.500 txartel, barraketarako

Abenduaren 21etik abenduaren 31ra bitartean Erregetxean izango dira zaldiko-maldikoa eta ohe elastikoak, Bizikale Merkatari Elkartearen eskutik (egun gehiago ere egingo dituzte Sorraluzen, baina euren kabuz). 11:00etatik 13:30ak arte eta 17:30etik 20:30ak arte izango dira zabalik barrakak; hori bai, abenduaren 25ean eta urtarrilaren leuan itxita egongo dira. "2.500 txartel atera ditugu, 1,50 euroan. Horrekin Gabonetako otarraren zozketan parte hartzeaz aparte, barraketan ibiltzeko lau sarrera daude. Aurten txartel gehiago atera eta merkeago ipini ditugu; iaz 2,50 euro zen prezioa" esplikatu du Onintza Elgetak, Bizikale elkarteoko presidentea.

# Atxolingo Jaiotzaren ekimenak badu erreleboa



Atxolinen Jaiotza ipinita ateratako argazkia; belaunaldi berriak bete du aurten tradizioa.

Belaunaldi aldaketa gauzatuz ipini du aurten herritar talde batek Jaiotza Atxolinen. Niko Mendia, Miren Mendia, Oier Arantzeta, Andoni Calles, Ander Garitano, Jon Ugalde, Fernan Oregi, Aitor Elizburu eta Iñaki Larrañaga arduratu dira aurten zeregin horretaz, gaurdaino zeregin hori bete dutenei erreleboa hartuta. Bapo bazkalduta borobildu zuten eguna abenduaren 9an, zapatua, egindakoarekin gustura asko.

## Urkia Zelaikoen ekimenez

Urkia Zelaiko bazkideek bultzatu zuten Atxolinen Jaiotza ipintzeko ekimena, eta haiek eta haien gertukoak arduratu izan dira zeregin horretaz. Batzuk aipatze aldera: Pedro Elizburu, Mikel Valero, Jacinto Bruña zena, Juanito Urresti zena, Alberto Sodupe zena, Estanis Rodriguez, Jesus Alvarez, Jesus Arruabarrena, Isma Peñalba, Luis Urizar eta Manolo Badiola, esaterako.

# Udalaren esku



Errekaldeko 10. zenbakiko etxea udalari eman diote, lagapen modura. Hiru jabe zituen etxeak, baina 50 urtetik gorako etxeek derrigorrez pasatu beharreko Eraikinen Ikuskaritza teknikoaren tarterako, jabeek nahiago izan dute eraikina Udalari eman eta hura egin dadila haren kargu. Iker Aldazabal alkateak zera esan du: "Etorkizunera begira bota egin beharko da, kalea handitzeko eta poliki-poliki kontu honekin, Hirigintza aldetik herriko eraikin zaharrak zaharberritzeko pausoak ematen gabilta".

# "Jendearekin izandako harremana oroituko dut"



Mariaje Gallastegi Santa Ana kaleko saltokian.

Mariaje Gallastegik, Merceria Mariaje dendako ugazabak, erretiroa hartuko du, saltokian 35 urteko ibilbidea egin ondoren. "Hasieran atletxea izan arren, mertzeria izenarekin zabaldu genuen denda (1982ko abenduan), ze mertzeriaren barruan sartzen zen artilea, kremaierak, botoiak... eta ekartzen genuen guztia".

## Noiz itxiko duzu?

Urte amaieran, abenduaren 30ean. 67 urte beteko ditut neuk ere abenduan.

## Pozik, tristuraz, gogotsu...

Pozik nago baina pena ere ematen dit, ze oso lan atsegina da eta jendearekin dudan harremana oso ona da. Baina askatasuna behar dut dagoeneko. Lan aldetik, baina, oso polita eta entretenigarria da. Jendea ezagutzen da... Baina erretirorako garaia iritsi zait. Jendeak esaten dit: aspertu egingo zara... Eta bai zera! Gauza mordoia egitea gustatzen zait-eta!

## Zer esaten dizute betiko bezeroek?

Askok esan didate pena handia dutela.

## Eta zuk zer esaten diezu?

Ohituko direla (barre), eta badudala erretirorako garaia... baina, jende askori ere ekartzen diet ogia, bestelako enkarguak egiten dizkiet...

## Negoziari dagokionez, zein garapen izan du 35 urtean?

Oso egoera zaila bizi du orain. Salmentak asko jaitsi dira 2008tik. Nik bezero onak izan ditut, baina askoz ere jenero gutxiago ekarrira. Denda txikian lan egitea oso zaila da gaur egun. Gazteek bestelako erosteko ohiturak dituzte...

## Ez dago erreleburik?

Gazteak merkataritza zentro handietara joaten dira. Eta zentro handiekin ezin dugu lehiatu dendari txikiok. Ondorioz, denda txikiak ez du lehengo moduan saltzen. Edo erretiratuei dagokienez, haiei ez badizkiete pentsioak handitzen, ezin dute lehengo moduan erosi. Ni oso gustura egon naiz, baina gezurra esango nuke krisia igarri ez dudala esango banu. Gutxiago erosten da.

## Beti izan da saltokia leku berean?

Bai. Hasieran atletxea izan zen, mertzeriako produktuekin. Baina artilearen erabilera jaitsi egin zenean, jantzizaintza handitu egin zelako, hasi nintzen lentzeria, kortse-produktuak eta jantziak ekartzen. Atletxearekin bakarrik egon nintzen 1983tik 1992ra arte-edo.

## Ze oroitzapen duzu gogoan gehien?

Jendearekin izan ditudan berriketaldiak. Jendearekin izandako harremana. Oso lan atsegina izan da, egia esan.

## Urtarrilean hasiko dira Gabolats kalea eraberritzen



Construcciones Morga S.L. enpresari esleitu dizkio Sorraluzeko Udalak Gabolats kalea urbanizatzeko lanak. 158.484,5 euroko inbertsioa eginda (BEZ barne), urtarrilean hasi eta hiru hilabetean bukatzeko aurreikuspena egin dute. Hiru lan nagusi egingo dituzte: kalea altxatu behar dutela aprobetxatuz, kalea maila bakarrean ipini; aldapa hasieratik Ezozki bideko biribilgunerainoko saneamendu hoditeria berritu, eta, horrekin batera, Gabolats kaleko 36. atariko eskailera kendu egingo dute. Iñaki Rubiok, obretako zinegotzi arduradunak zera esplikatu digu: "Horrela, jarraipena emango zaio espaloiri, zabalera errepedeiri eta herriarren segurtasuna bermatu egingo da. Etxeko eskailerak, berriz, beste aldean ipiniko dira".

## Bertakoen egutegia salgai

Kontrargiren egutegiak urtarrilaren 31ra arte daude eskuragai bi euroan, Etxabe, Marimar eta Iñarra harategietan; Mendizabal eta Bolintxo okindegietan; Asigor tabernan eta Iratxo gozodendan eta Arzelus dendan.

# Abendua argazkitan

ARGAZKIAK: **UBANE MADERA, EGOITZ UNAMUNO ETA FERNAN OREGI** TESTUA: U.M.

Berbalagunek Albaolara bisita egin zuten azaroaren 26an. Abenduaren 4an, berriz, Euskararen Eguna ospatu zuten Plaentxi Herri Eskolan. Abenduaren 5ean bihotz-bihotzez esker-ona helarazi zieten Mesedeetako egoitzakoek borondaterik onenarekin laguntzen joaten zaizkien elkarteei eta norbanakoei. Gurutze Gorria, Alkarri eta Nagusilan elkarteen eta partikularren ordezkariak jaso zuten aitorza. Bestalde, bisita berezia izan zen abenduaren 7an: Samantha eta Pierrot frantsesak, Les têtes de mule (mandazainak). Bertatik pasa ziren Andaluziarako bidean.

Dantzan zoratzen ibili ziren, berriz, abenduaren 17an neska-mutikoak, Atxolin Guraso Elkarteak antolatutako disko-festan. Bigarren eskuko produktuen azokak (abenduak 16) erakutsi zuen indarra hartzen doala. Majo ospatu zituzten Gabonak Itxaropena elkartean abenduaren 20an. Eta zela ez, Soraluzeko Musika Eskolako 60 bat neska mutikok ikasitakoa taularatu zuten egun berean.





## MARGOTU



## Kiroldegian

Iturrik ibero, eñi haurrak:  
Bilatu ez dagoen Kiroldegiko  
irudari. Zintzuk dira?




Haurk iberoko bi pargin dauke  
bertan. Skuterrik al dituzte?  
Eta pinganeri?



## DOMINO ZATIA

Bete itazu fitxetako espazio zuriak, domino azki hiru osatu lan dadin.



## ELURRA MENDIAN

Zenbat animalia ikusten dituzu?



## SUDOKU

Ipini azukitu bakoitzean letra bat dagoen bukin. Gogoratu huki bakoitzak behin ageritu behar duela gutxi, berriz eto lau laurkita orain bakoitzeko.

B		I
L	B	
	A	



A		Z
	P	
O		



## opari Festa

Orlano itazu opari kate hauak hantzik bukitu. Hantzerari 1 erabakia eman, hurrenguari 2... Titulerari 8 erabakio jarri.



## Auzolanean eraikitako etxea

Brigadako langileek muntatu dute egurrezko etxea, hesiak, ardiak eta zuhaitza; Laibiko elektrizistek piztu dituzte argiak; Kukumixoko hezitzaileek garatu dute ideia eta jarri dituzte sendabelarrak ortuan, hizkuntzen errota, Mari Domingi eta Olentzeroren panpinak; Aitor Oregik ekarri ditu egurrak; Munetako baserrikoek egin dute belar-meta; Arizaga baserriko Ezozik artaburuak, piper gorriak eta babak; Marimar Dezak kalabazak; Osumako Estebanek sendabelar sorta eder bat, Belarrakeko ahizpek loreak, apaingarriak eta sendabelarrak; Auzokoko kideek haien hizkuntzetara ekarri dute esaldia; Manu arotzak ortuaren egurrezko armazoia eta errotaren konponketak; San Andres Iturgintzako Txerenek ura bonbeatzeko sistema; eta Tere Guenetxeak gainbegiratu du dena, ezin konta ahala detaile gehituz.

Eskerrik asko Gabonetako ekimen honetan eta gainerakoetan parte hartuko duzuen herritarroi. Aurten ere, auzolanean eraiki dugu etxea, goza dezazuen ume txikiok eta handiok!!

### Pil-pilean Euskara Elkartea

## 500.000€ diru asko da

Herriko langabezia-tasa %15ekoa denean (Gipuzkoako handiena, diferentziarekin), udaletxeko teilatua egoera tamalgarrian eta itoginez josita egonda, autobus parada markesina eta banku gabe daukazunean, 50 urtetik gorako eraikinek (Soraluzen asko) 2018an ITEak pasatzeko obligazioa dutenean, Musika Eskolako leihoetatik hotza sartzen ikusten denean, paddle pista estali gabe dagoenean, umeentzat estalitako jolasleku falta dagoenean, kiroldegi gainean skate gune bat jar dezakezunean, inbertsio energetiko potenteak egiteko proposamen

teknikoak mahai gainean dituzunean Sologenerako eta Kiroldegirako... nola da posible EAJ eta PSE-EErentzat horiek guztiak egitea baino lehentasunezkoagoa izatea kiroldegi gaineko terrazan solairu berri bat eraikitzea? 500.000€ beharko dira solairu berri hori egiteko, ez da broma. Diru horrekin hasieran zerrendatutako lan eta beharrei aurre egin ahal izango geniekeela ikusita, ez zaigu batere egokia iruditzen 2018ko aurrekontuetarako Udal Gobernuak hartutako erabakia.

### EHBilduko zinegotzi taldea

[aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

### HAUSNARKETA

## Alda litezke hizkuntza-ohiturak?

Besteekin erabiltzen dugun hizkuntza hautatzerako orduan, ohitura izan ohi da irizpide nagusienetakoa. Herritar batzuek badihardute ohiturak aldatzen eta aldarazten.



**Marijo  
Miranda**

Salamancakoa naiz, eta jakina erderaz egin izan dut beti. Baina hona etortzean, ni ez nau inork euskaraz berba egitera behartu eta medioak ipiniz gero, nahikoa ikas daiteke. Posible da, eta ez da askok esaten duten bezain gogorra. Denbora behar da, baina ahalegin apur batekin posible da. Niri euskara gustatu egiten zait. Umeari, adibidez, ipuinak beti irakurri izan dizkiot euskaraz.



**Igor  
Garitano**

Euskaraz dakitenei beti euskaraz egin izan diet, eta ez dakitenei ba ez. Baina orain etxean alabarekin beti euskaraz egiten dut eta andrearekin batzuetan euskaraz, berba batzuk, sikiera, eta ez badu ulertzen ba erderaz. Gogoa ipinita, posible da euskaraz ez dakienarekin ere euskaraz berba egitea. Nik Salamancan ere, den-dena euskaraz egiten diot umeari, nahiz eta hango familiarekin egon.



## Gabonak



Egilea: P.G.



**Alberto  
Viciosa**

Nik txikitatik erderaz egin izan dut berba, beti, gurasoekin, familia artean... beti. 25-26 urterekin hasi nintzen andrearekin apur bat euskaraz berba egiten, eta gero umeak izan genituenean, hortik aurrera poliki-poliki gehiago. Ohiturak aldatzea izan liteke gakoetako bat, baina gu ere bai, lotsa galdu eta ikasi ere egin behar da, indarra egin behar duzu lortzeko.



**Arrate  
Gisasola**

Badago hamaika adibide hizkuntza ohitura aldatetekin lotuta: Euskaltegian euskaraz ikasi eta lagun artean egitera pasatu dena, harremanean gaztelerez egitetik euskaraz egitera pasatu den bikotea, aita izan eta euskara berrartu duena... Askotan, bizitzan gertatzen zaizkigun aldatetara moldatzeko garaian datoz hizkuntza aldatetak ere, baina nere ustez erderetatik euskarara aldatzeko gako nagusia norbere motibazioa da.



**Soufiane  
Benzian**

## Al Quds

Espainian hainbat manifestazio egin dira Palestinari elkartzasuna adierazteko: Madrilen, Bartzelonan eta Bilbon, baina betiko moduan ez dute inolako eraginik izan. Kexatu zaitez, atera kalera, egin lau oihu eta bueltatu pozik etxera istiluen kontrako indarrek ez badizkizute lau zartako eman. Horrela otzantzen dira masak Espainian, eta tiroz Palestinan.

Azken egunotan ia ehun pertsona hil dira protestetan. Pozik beharko genuke egon, hemen, behintzat, protesta egiten lagatzen digutelako, baina ni ez nago pozik, zeren eta gure kexak itzulerarik gabeko putzu batean erortzen dira. Modernotzat dugu geure burua, baina mundua feudalismora itzularazten gaituen pseudomoralitate batek gidatzen du.

Palestinak urteak daramatza askatasuna amesten, eta Trumpek erabaki du pixka bat gehiago hasarraraztea, eta oztopatzea Israel eta Palestinaren berradiskidetzea. Bitartean, guk ezin dugu ezer egin, ez bada, otoitz edo oihu kaleetan, entzungor dauden agintariei. Hala ere, inoiz ez diogu lagako borrokatzeari, gure ahotsa entzun arte: Palestina Libre.



*Euskaraldia* aurkezteko ekitaldia. Herritarrak Euskaltzaleen elkarteko eta Hizkuntza Politikarako Batzordeko kideekin batera.

ERREPORTAJEA

# Ohitura bihur dadin

*Euskarak 365 egun* dinamikaren baitan jaio da *Euskaraldia* ekimena, euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza-ohiturak aldatzea helburu duena. Ekimenaren lehen edizioa 2018ko azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3ra bitartean egingo da, *11 egun euskaraz* lelopean.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Eta horren berri emateko abenduaren 3an *Euskaraldia* aurkeztu zuten plazan, 2018ko udazkenean euskararen lurralde osoan aldi berean egingo den aktibazio-ekimen handia. Protagonistak euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izango dira, eta, hamaika egunetan zehar, beraien ohiko harreman-sareetan euskaraz jarduteko gonbita egingo zaie herritarrei, inertiak apurtu eta euskarazko hizkuntza-praktikak bultzatzeko helburuarekin.

## Parte hartzeko atepak zabalik

Aktibazioak martxan jartzea esan nahi du. Hortaz, hizkuntzaren erabilerari lotutako kontzeptua da: euskaraz hitz egiten dakitenek edota euskara ulertzeko gaitasuna dutenek euskara gehiagotan erabili dezaten lortu nahi dutelako sustatzaileek; oraingoz, Pil-pileanek eta Hizkuntza Politikarako Udal-Batzordeak.

Hamaika egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak bihurtu nahi dituzte **ahobizi** eta **belarriprest**.

## Ahobizi

Euskaraz egingo die belarriprest-ei eta ulertzeko gai diren guztiei, haiek erdaraz erantzun arren. Era berean, ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo die. Identifikatzeko, goiko irudian agertzen den moduko txapa eramango du.

### Garazi Catalan

“Bi hizkuntzak erabiltzen ditut, baina euskara da gehien erabiltzen dudana. Hala ere, euskal hiztunekin ez dut beti euskaraz berba egiten. Uste dut ohiturek pisu handia dutela, akaso gehiegi. Euskaraz berba egiten hasita, ikusiz gero parekoak ez duela euskaraz erantzuten, pasatzen zara erdarara. Ohiturak aldatu izan ditut. Gutxitan, baina bai. Uste dut ohiturak aldatzen baditugu, guztiondako aldaketa ekar lezakeela.

**“Prest nago Ahobizi izateko, eta uste dut oso esperientzia ona izango dela”**

Ni prest nago Ahobizi izateko, eta uste dut oso esperientzia ona izango dela. Nire kasuan etxean ere bai, ze amarekin euskaraz berba egiten dut, baina aitarekin ez. Eta hura prest dago Belarriprest izateko, beraz, aberasgarria izango dela uste dut.”



## Belarriprest

Belarriprest denak dakienari berarekin euskaraz aritzeko gonbita egingo dio, hark euskaraz zein erdaraz erantzun arren. Identifikaziorako, goiko irudian agertzen den moduko txapa eramango dute, ahobizi-ek belarriprest dela jakin dezaten.

### Sebas Hernandez

“Nik gaztelera erabiltzen dut egunerokoan. Ahalegintzen naiz euskaraz gehiago egiten, eta nahikoa fin nabil, baina gehienbat gaztelera erabiltzen dut. Bueno, elebitan ere egiten dut apur bat. Euskaraz egiten badizute, ohitzen zoaz hizkuntzara. Dena da ohitura.

Niri asko gustatzen zait. Oso polita eta oso inportantea dela iruditzen zait. Gure altxorra da eta

**“Euskaraz egiten badizute, ohitzen zoaz hizkuntzara. Dena da ohitura.”**

ezin dugu galtzen utzi eta are gutxiago erabiltzen jakinda. Uste dut altxor hori duena benetan zorionekoa dela, benetan. Lorpen handienetako bat da eskolan dauden neska-mutikoei euskara ondo ikasita bukatzea ikasketak. Guk ez genuen izan aukera hori, baina orain Belarriprest naiz.”



## 2018an herritarrak aktibatu nahi dira eta 2019an, berriz, erakundeak

Lehenaren ardura izango da euskaraz hitz egitea ulertzeko gai diren guztiei, haiek erdaraz erantzun arren, eta ezezagunei lehen hitza euskaraz egitea. Bigarrenaren zeregina, ostera, dakienari euskaraz berba egiteko aukera ematea izango da, norberak erdaraz erantzun arren. Nolanahi ere, euskaraz hitz egiteko gai diren parte-hartzaileek eurek erabakiko dute zer rol jokatu.

Herritarrek 2018ko udazkenean izango dute *Euskaraldia* izena emateko aukera. Izen-ematea irailean zabalduko da eta hala nahi duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute. Ekimenak iraungo duen hamaika egunetan partaideek **ahobizi** edo **belarriprest** identifikaziorako ikurra erabiliko dute, horrela begi-kolpe batean erakutsiko dute zein rol jokatzen duten. Herritarrek antolaketa-lanetan parte hartzeko aukera ere izango dute. Izan ere, datozen hilabeteetan, Soraluzeko 365 taldea osatu eta haren baitan hainbat lan-talde

eratuko dira: ekimenaren inguruko komunikazioa lantzeko, izen-ematea bideratzeko, baliabideak eskuratzeko...

### Herri asko lanean

*Euskaraldia* ez da hutsetik abiatzen – *11 egun euskaraz izena hartuko du 2018an* -. Azken bi urteotan Euskal Herriko hainbat herritan martxan jarri izan diren dinamiketan du abiapuntua. Azpimarragarriak dira ekimen horietan euskaltzaleek izandako ilusioa eta konpromisoa, bai eta ekimenek hizkuntza-ohituren aldaketan izandako eragina ere. Lasarten, esaterako, 1.000 **ahobizi** eta 2.000 **belarriprest** aktibatu ziren hizkuntza-ohiturak aldatzeko; eta ekimenaren ondorioz, euskararen erabilerak 20 puntu egin zuen gora.

Dagoeneko lanean hasita daude 50 herri eta eskualde baino gehiago; esaterako: Bilbo, Igorre, Gasteiz, Gorbeialdea, Arrasate, Elgoibar, Orereta, Ibarra, Baztan, Lizarra, Angelu, Baiona eta Miarritze. Horietako batzuek egin dituzte jadanik aktibazio-ekimenak eta datorren urtean asmoa dute errepikatzen. Badira, ekimena aurten lehen aldiz egingo dutenak ere; adibidez, Soraluze.

## Datuen argia

### Erabilerak beherantz

2011 %33,55

2016 %31,2

Azken urteotako kale-erabileraren neurketek adierazten dutenez, 2011n, ordura arte goraka zijoan erabileraren hazkundera gelditu egin zen eta beherantzko joera arina hartu du.

### Ezagutzak gorantz

2011: ia-eusk %21 78 (eusk %57) ,

1991: ia eusk %12 71 (eusk %59)

Ia-euskaldunen kopuruak bederatzita puntu egin du gora azken hogeita urteotan. Gaur egun hamar soraluzetarretik zortzik badakite euskaraz.

Iturria: Soraluzeko Udala eta Eustat.



### Arienne Unamuno Pil-pileaneko koordinatzailea

Azken urteotan, euskararen ezagutzak gora egin du nabarmen, baina erabilera ez da neurri berean hazi.

Esaterako, Soraluzen, badira 10 bat urte erabilera-datuek beherantzko joera erakusten dutela. Aldiz, ezagutzaren neurketek diote dagoeneko hamar soraluzetarretik zortzik ezagutzen dutela euskara eta hori ez da nolana hiko datu; esan nahi du, pentsa genezakeena baino jende gehiagok dakiela euskaraz. Beste kontu bat da noski, horien arteko elkarrizketak euskaraz izatea; horrek eskatzen du jende askoren jarrera aktiboa, eta, hain zuzen, aktibazio hori eragin nahi du Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimenak.



### Mikel Leunda Euskara teknikaria

Azken datuen arabera, Soraluzeko biztanleen %57k (2.177) euskaraz ondo ulertu eta ondo hitz egiten duela aitortzen du. Ezagutza hori, gainera, are eta handiagoa da adinean behera egin ahala, 2-14 urte

tartean, esaterako, 10 haurretatik 9 euskaldunak dira.

Ez da gauza bera gertatzen, ordea, erabilerarekin; alegia, euskararen erabilera ez da ezagutzaren erritmoan hazten ari. Badirudi, gainera, erabilerak -%31koa da- goia jo duela azken urteetan, ez baitu gora egiten.

Ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen alde horren atzean hainbat arrazoi daude (gaitasun erlatiboa, harreman sareak...), baina ausartuko nintzateke esatera ohiturak -euskaldunok gazteleraz egiteko daukagun ohiturak- ere zerikusi handia duela afera honetan, azken finean, zenbait animaliak ez bezala, gizakiok

## “Neurketek diote dagoeneko hamar soraluzetarretik zortzik dakitela euskaraz”

Euskaraldiak eskainiko digu egunerokoan euskaraz erosoago jarduteko ekosistema. Ikusiko ditugu gure kuadrillakoak, senideak, lankideak, dendariak, kirol-taldeko lagunak, elkarte gastronomikoko bazkideak, pintxo-poteko lagunak... ahobizi edo belarriprest txapa paparrean dutela. Helburua da: euskal hiztunak aktibatzea eta erabilera indartzea.

Helburu hori lortzeko aspaldiko baldintzarik onenak ditugu: elkarlanerako prestutasuna, aldekatasun soziala, ezagutza zabala eta herritar askok dugun euskaraz bizitzeko gogoia. Merez du froga egitea, ez duzu uste?


## “Euskaraz ulertzen dutenekin egitera ohitzen bagara, ikaragarri handituko da erabilera gure herrian”

interakzioaren eta, ondorioz, ohituraren bidez funtzionatzen dugulako.

Oso bestela izango lirateke kontuak euskaraz dagikunok gure artean euskaraz egingo bagenu eta, zer esanik ez, euskaraz ulertzen dutenekin ere euskaraz egingo bagenu, izan ere, ia-euskaldun moduan ezagutzen diren azken hauen kopurua oso handia da gure herrian, 795 pertsona, biztanleen %21.

Ohiturak aldatzean dago, beraz, klabea. Euskaldunok euskaldunekin eta euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egitera ohitzen bagara, ikaragarri handituko da euskararen erabilera gure herrian, horretarako baldintzak badaude eta.

Datorren urtean abiatuko dugun “11 egun euskaraz” ekimenak horretarako aukera polita eskaintzen digu.



# Abizena euskaldundu nahi?

Oso erraza da.

Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.

Agiri hauek eraman:

- Nortasun-agiriaren fotokopia. Originala ere eraman behar da.
- Hitzez hitzeko jaiotza-agiria. Epaitegian eskatzen da.
- Errolda-agiria. Udaletxean eskatzen da.
- Familia-liburuaren fotokopia. Adin txikikoentzat aldaketa eskatzen bada.



# AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioilariak ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasangarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

[bidegi.eus](http://bidegi.eus)



# Bigarren urtez, futbol-topaketa ikusgarria izango da Soraluzen

350 bat futbolari gaztek eta haien entrenatzaileek, koordinatzaileek eta hainbat gurasok Soraluze bisitatuko dute abenduaren 30ean, Soraluze Futbol Taldeko eskolak bigarren urtez antolatu duen Oinarrizko Futbol Eskolen II. Txapelketaren baitan.

Lau mailatan banatuta, 24 futbol-talde bertaratuko dira; 2006-2009 urteetan jaiotako mutikoak dira guztiak ere, lehen eta bigarren urteko benjaminak eta lehen eta bigarren urteko alebinak. Beste batzuen artean, Donostialdetik, Deba eskualde ingurutik eta Bizkaiatik etorriko dira futbolariak.

Etsekoei dagokienez, Sorako 50 bat mutikok parte hartuko dute txapelketan, Sorako futbol eskolako lau taldek, alegia.

Futbolari guztiak 09:00etan elkartuko dira Ezoziko Futbol Zelaian. Eta bi taldetan banatuta, ligaxkak jokatuko dituzte. Goiz parteko partiduak sailkapenerako baliagarriak izango dira, eta arratsaldean kanporaketak jokatuko dituzte.

09:30ean hasiko dira partiduak, eta eguerdian etena egingo dute bazkaltzeko. Hain zuzen ere, bi autobus ibiliko dira mutikoak futbol zelaitik jaisten eta igotzen. Bazkariko lehen txanda 12:30ak inguruan izango da; ze mutikoez txandaka bazkalduko dute, guztiak partiduak jokatu ahal izateko eta 14:30ean kanporaketekin hasi ahal izateko.

Sorako futbol-eskolaren asmoa da 19:00ak ingururako partidu guztiak bukatzea, eta ondoren sari banaketa

egitea kiroldegian. Horrekin borobilduko dute eguna.

Iaz antolatu zuen lehen aldiz Sorako futbol-eskolak Gabonetako eskolarteko txapelketa; antolaketa dagokionez zein ekonomikoki ahalegin handia eskatzen die ekimenak, baina iazko esperientzia ikusita, errepikatzea erabaki dute. “Iaz demaseko jendetza elkartu zen. Giro polita sortu zen herrian eta Soran, eta umeek eta gurasoek ondo pasatu zuten. Azken batean hori da helburua: umeek ondo pasatzea. Hori bai, eskerrak eman nahi dizkiegu ekimena gauzatzeko laguntza ematen diguten enpresei eta erakundeei. Eta gurasoei mezu bat helarazi nahiko genieke: kontuan har dezatela ekimenaren antolatzaileak ez garela profesionalak, gurasoak, baizik”.

## 45 gazte Soraluzeko Pilota Elkartean

Gabonetako opor aurreko erakustaldian, gogotsu jardun zuten Soraluzeko pilota-taldeko 40 bat neska-mutiko kiroldegiko pilotalekuan. Han elkartu ziren gurasoak eta bestelako ikusleak adinaren arabera antolatutako partidak ikusteko. Gabon aurrekoa eta ekainekoa da Soraluzeko Pilota Elkarteak urtean egiten dituen bi erakustaldiak.

### Osasuntsu

45 pilotari gaztek dihardute Soraluzeko Pilota Elkartean; horietatik bi dira neska, gainerakoak, mutilak. 6-13 urtera bitarteko neska-mutikoez asteen birritan jarduten dute pilotan, eguaztenetan eta barikuetan. Lau irakasle aritzen dira haiei erakusten:



Soraluze Pilota Elkarteko kideak eguaztenean Gabonetako erakustaldian.

Gorka Santamaria, Aitor Atxotegi, Ibai Tajuelo eta Ibai Kortabarria. Azken horrek esandakoaren arabera, osasuntsu dago Soraluzeko Pilota Elkarte, nahiz eta adinarekin

zaletasunak aldatu: “lehen mailako ume dezente daude; nagusitu ahala gutxitu egiten diren arren; bada, adibidez, Debatik etortzen den ikasle bat ere”.

**KLB6**  
 Kalebarren 6  
 943 27 74 26  
 Multen-eta nahien  
 modogaitza  
 f  
 www.kalb6.com  
 Facebook  
 Instagram  
 TIKETZ  
 BUNICO  
 Paga Jaurea  
 MABLENO  
 MATRON SCOTCH  
 VERO MODA

**AURREZTU ENERGIA**  
 Berotu ura eguzki izpiekin  
 edo airearekin  
 fontanerria  
**SAN ANDRES**  
 iturgintza  
 639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

*Jatearen plazarrua, bertatik bertara*  
**Batzoki**  
 eguzki menua  
 antzinaratza  
 kama eta raiakok  
 ogartekok eta  
 hamburgerrik  
 enkargo bereziak  
 Sautia eta  
 legaz arakoa  
 hotzakak  
 Emendak: 943 75 30 35

**TXURRUKA  
 JATETXEA**  
 Sukalde  
 tradizionala  
 Eguneko menua  
 Asteburutako  
 menu berezia  
 Karta  
 www.txurruka.com  
 Tel.: 943 75 15 81

*sutarako egurra salgai*  
 pago-egurra, haritz-egurra...  
**OSUMA**  
 basolanak  
 mug. 635 75 34 08

**ION MURGIZU BAKAIKOA  
 PINTOREA**  
 arnuta  
 dekoratiboa  
 inguluzria  
 Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

**ARRANO**  
 taberna  
 Etxeri eta gazte  
 etxeko giroak  
 Etxebarreta 6  
 telefonoa: 943 75 24 09

**MENDIZABAL**  
 okindegia  
 Ogi - Prentsa - Gosariak  
 Astelehenetik  
 ostiralera:  
 09:00 - 13:15  
 17:00 - 20:00  
 Larunbetak eta  
 igandak  
 08:00 - 13:15  
 Kalebarren 10  
 Tel.: 943 75 13 99

**Hortz klinika**  
 Javier Alonso  
 Medik. Odontologikoa  
 K.Z. 48.001.504  
 Kofia Gurrino  
 Odontologoa  
 K.Z. 48.001.548  
 27 urteko  
 esperientzia  
 birak gabea onerara,  
 odontologia onerara,  
 griesa lekuak eta mugimena,  
 odontopediara, ortodontia,  
 implantak, estetik...  
 Enbatal 1 - Tel.: 943 75 16 13

Soraluzeko  
**Kooperatiba Elkarteak**  
 190etk erakak  
 janari denda, erropak,  
 etxeko tresnak,  
 etxera eramateko zerbitzua  
 Kalebarren 4  
 Tel.: 943 75 13 45  
 Astelehenetik ostiralera:  
 08:30 - 02:30 eta 07:00 - 09:45  
 Larunbetak: 08:30 - 01:00

**Kontulan**  
 aholkularitza  
**ABOKATUAK**  
 Errenta hitzartzerak - Administraziozko lanak  
 Trafikoko burokratiaz - Lan-erlako aholkularitza  
 Enpresen kontabilitate/auditazioak - Kontabilitateak  
 Santa Ana 13 - 1. eta. 20590 Soraluze  
 Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**ELIZPE  
 HORTZ KLINIKA**  
 Zure gureko hortz klinika,  
 punta puntako teknologijekin lan  
 egiten dugu. Cad-Cam sistema  
 berriztatzen erabiltzen dugu.  
 Elizburu, 3 behea  
**SORALUZE**  
 Tel. 943 75 25 67  
 e-mail: elizpe.ih@gmail.com  
 Ordutegia:  
 Astelehenetik ostiralera  
 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

**IZAGUIRRE**  
 Igeltzeritza  
 Eraklin berriak - Kalitatezko emaitza  
 Erreformaak - Era guztietako igeltzeritza  
 50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 289

**TXOKO  
 KAFETEGIA**  
 Eguneko menua,  
 raziok, plater  
 konbinatuak,  
 hamburgerak,  
 ogitartekoak,  
 gosaria, pizzak...  
 Kalebarreneko  
 kale kartolan  
 Tel. 943 75 17 89  
 Enkarguak  
 egiten dira

Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** **Aras** **ALBISUA** **laibi** **SORALUCE**  
 ELECTRICIDAD

# Prest Mari Domingiren eta Olentzeroren etorrerarako



Etxolaren muntaketan parte hartu duten kideetako batzuk.

Bidean dira Mari Domingi eta Olentzero, domekan Soroluzen egingo den kalejirara etortzeko. Etzi, 11:30ean txalaparta, adarra eta irrintzia baliatuta dei egingo diete herriratu daitezen eta Galtzagorrien laguntzaz Elizburuko eskaileretatik behera jaitsiko dira Zubi Nagusira. Han zain izango dituzte herritar mordoa: neska-mutiko eta gazteak, gehienak, guraso ugari ere bai, eta baita herriko hainbat elkartetako kideak ere, adibidez, etorrera musikaz lagunduko duen Soroluzeko Musika Eskolakoak, edo kalejiran lagunduko duten eskolako eta guraso elkartetako kideak. Izan ere, guztiak batera abiatuko dira kalejiran, Olentzero eta Mari Domingi gurdira igo ondoren.

Ibilbidea ohikoa izango da: Ezozki bideko biribilguneraino igo eta han buelta hartu, kiroldegiko frontoiraino. “Baina ibilbidean sorpresak izango dira aurtentzen”, aurreratu dute kalejiraren antolatzaileek, Kukumixoko kideek.

Sorpresak ezin ditugu argitu, noski, baina bai sorpresak izango duen nolabaiteko izaera. Hori horrela, beraz, adieraz dezakegu Olentzeroren eta Mari Domingiren etxolaren bueltan, aurtentzen, transmititu nahi izan diren hiru mezuetan

oinarritutakoak izango direla. Honakoa esplikatu digute Kukumixoko ordezkariak: “Osasuna, hizkuntza-aniztasuna eta maitasuna ekarri dute aurtentzen Mari Domingi eta Olentzerok etxolara. Osasunari dagokionez, horren adierazle da aurtentzen bertan ipinita dagoen sendabelarren ortua. Hizkuntza-aniztasunari dagokionez, etxola ondoko kulturaren errotan adierazi dira Plazentzian mintzatzen diren hainbat hizkuntza; maitasunari dagokionez, ostera, etxola barruko kazolaran maitasuna bor-borka ekarri dute Mari Domingi eta Olentzerok, gero etxeetara barreiatzeko”.

Gero, kiroldegian jarriko dira Mari Domingi eta Olentzero umeak eta gazteak haien magalean hartu eta gutunak jasotzeko. Antolatzaileek gogora ekarri dute kalejiran parte hartzen dutenek izango dutela lehentasuna. Gainera, Olentzerok eta Mari Domingi opariak emango dizkiete bertaraten direnei, Arizagakoe egindako ehunka opil goxo, besteak beste.

Guztia gertu dago, bada, egun magikorako. Antolatzaileek parte hartu behar dutenei eskatu diete baserriar janzteko eta helarazten diren jarraibideak errespetatzeko.

## Berritasunak aurtentzen Errege Kabalkadan

Urtarrilaren 5ean Errege Magoen bisita jasoko du Soroluzek ere, *Beti Prest Aisialdi Elkarteari* esker. Aurtentzen, berritasunekin datoz Errege Magoak. Batetik, Errekaldetik beharrean Atxuriko plaza ondotik abiatuko da kalejira, Mesedeetako egoitzara bisita egin ondoren, horren harira Jose Gilek (antolatzaileetako batek) zera adierazi digu: “beraz, haien ondoan joan nahi duten neska-mutikoei 19:00etan egon beharko dute Atxuriko plaza inguruan”. Bestetik, erregeek karrozen laguntzarik barik, baina zaldiz egingo dute kalejira, azpiegiturak lortzeko zailtasunak tarteko. “kalejira antolatzen dihardugun 25-27 urteotan gero eta azpiegitura arazo handiagoak izan ditugu, garajea lortzeko... iaz ere justu-justu lortu genuen. Hortaz, aurtentzen erabaki dugu kalejira zaldiz egitea” esplikatu du Gilek.

Hortik aurrera, ez da beste aldaketarik izango kabalkadan. 50-60 bat kilo gozoki banatuko dituzte ikusleen eta kalejirako partaideen artean. Eta gertu dituzte 600 opari inguru, eliz-atarira bertaraten diren neska-mutikoen artean banatzeko.

Hori guztia urtez urte posible egiten dihardute *Beti Prest Aisialdi Elkarteko* ordezkariak. Batez ere lau kide aritzen dira lan horietan: Silvia Fajardo, Elena, Cadenas, Juncal Iglesias eta Jose Gil. Laurek eskerrak eman nahi dizkiete urte hauetan guztietan laguntzen ibili zaizkien guztiei: pajeei, traktorea laga dietenei, gurasoei eta abar...



# The Crazy Wheels Band disko berria aurkeztera dator

Ina Arriola eta Juan Fernandez soraluzetarrak taldekide dituen *The Crazy Wheels Band* musika-taldea bere lehen LP-a aurkeztuko du -*Mundua Sutan*- Soraluzen abenduaren 29an, barikuan. Herriko antzokian egin dute hitzordua 22:00etan. Juan Fernandez bateria-joleak zera esplikatu digu: "Kontzertu indartsua eta lasaia izango da, aldi berean. Laz jendea oso gustura egon zen. Jarrita ikusteko kontzertua da, eta denetik egongo da: rock kantuak, blues kantuak, bertsoiak: *Eagles*, *Bob Seger*, *Creedence Clearwater Revival*, *The Little Willies*...".



*The Crazy Wheels Band* Bilborock lehiaketan aurtengo urrian.

**70eko hamarkadako musika** Bederatzi kanturekin osatutako diskoa aurkeztuko dute. AEBtako musikan sustarrak dituen estilo anitzarekin landu dute berai, 70eko hamarkadako musikan oinarritutako doinuak dituena, hain zuzen ere: *contrya*, *bluesa*, *rocka*... Ez

da oso ohikoa talde euskaldunek mota horretako musika lantzea, eta, horri esker, besteak beste, 2015ean Boisen arrakasta handiko kontzertua eskaini zuten, euskal kulturaren festibalaren baitan.

*The Crazy Wheels Band* taldearen ibilbidearen baitan, aipatzekoa da

Izaro eta *Margo Cilker* moduko artistekin ere elkarlanean jardun izan dutela. Gainera, aurtengo urrian, Bilborocken, Bilboko pop-rock lehiaketan aritu ziren eta final-aurreraino iritsi ziren, ikusleen artean arrakasta handia lortuta.

## Urteurrena bukatzeko kontzertu borobila

Gustura borobildu du Ezoziko Ama Abesbatzak 25. urteurreneko ospakizun sorta, joan den zapatuan Elgoibarko Udal Musika Bandarekin eskainitako kontzertua eginda.

Kiroldegiko harmailak herritarrez bete ziren kontzertuaz gozatzeko; eta musikariak ere pozik geratu ziren egindakoarekin: "Esperientzia bikaina izan da abesbatzarentzat. Musikalki oso positiboa izan da banda batekin kontzertua ematea. Aukera guztiz zoragarria da. Ikusleen harrera inpresionantea izan zen. Frontoia beteta egon zen eta demaseko txalo zaparrada jaso genuen. Ondoren, kalean denek zoriondu gaituzte. Pozik gaude jendearen gustuko kontzertua izan delako. beraz, eskerrak eman nahi



Elgoibarko Udal Musika Banda, atzean Ezoziko Ama Abesbatza duela.

dizkiegu denei, bene-benetan jaso gure eskerrik beroena". Hala baloratu du egindakoa eta

jasotakoarengatik eskerrak helarazi ditu Ezoziko Ama Abesbatzako presidente Abel Olaizolak.

# Axlor Elortza

## Azkoitiatik Soraluzera



TESTUA: UBANE MADERA

Axlor Elortza (Azkoitia, 1982), duela urte eta erditik hona bizi da Soraluzen. Baina umetatik ezagutzen du udalerrria. Dioen moduan, “txikitan zapaturo etortzen nintzen amamanera. Herria eta herritarrek ezagutzen nituen eta banekien nora nentorren”.

### Zela ikusten du azkoitiar batek Soraluze?

Aldaketa handia da niretzat, pertsonalki, aita ere izan naiz... oro har, bizimodu aldaketa handia izan da. Konparatzen hasita, igartzen da hau dela herri txiki bat. Errekaduetara lehen aldiz irten nintzenean, ja jendeak ezagutzen ninduen, jendea jakinaren gainean zegoen. Herria lehenago konturatu zen ni hemen nengoela. Hemen ezagunak segituan egin ditut, eta ikusi dut jendea irekia dela, oso erraz egin dut harremana.

Herri txikia bereziki komertzioetan antzematen da, baina ez dugu arazorik; akaso kontrakoa, ze hemen Bidetxior kontsumo-taldean sartuta nago eta Azkoitia nahiz eta herri handiagoa izan, ez nuen aukera hori.

### Zatar fama ere badu...

Bueno, alderdi batzuk konpon daitezke eta beste batzuk ez.

## “Herri bezala mugimendu handia dago Soraluzen”

Azkoitin, bizi guztirako irudia geratuko zait leihoa ireki eta Izarraitz ikusten nuela. Hemen mendia pareta bezala da. Hori bai, mendira joatea gustatzen zait eta mendigainera joaten naiz, eta horrek ez du Izarraitzen inbidiarik.

Bestalde, herrian industria asko egon da eta zatarrak dago, baina lan pixka bat eginda konpon daiteke. Errekalde kalean, adibidez, etxe bat urdin pintatu dute eta ederra aldea egin duena.

### Zerk ematen dizu atentzioa?

Euskararen erabilerak. Orain, gainera, aita izan naizela... Beldur apur bat banuen, erdara askoz ere gehiago egiten delako, baina bizitza osoa euskaraz egiten dut, beraz, nire alabak aukera hori ere badu. Nik Plazentzian euskaraz egiten dut.

Eta beste kontu batek ere eman dit arreta: mugimendu bat egon zen, Alkarrekin Soraluze, eta horrek poz handia eman zidan. Ikusten zen bazegoela potentziala herri bezala, hori Azkoitian ez dut ikusi. Hemen gauzak ondo egiten dira. Herri bezala mugimendua dago.



1. Axlor Elortza hondartzan.
2. Axlor, Libe eta Ane.
3. Amaren etxeko leihotik ikusten den Izarraitz mendia.



Bertako enpresako teknikoak, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

# Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariak egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

## Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administraziokoekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteke. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oina rrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. “Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaitea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan”, diote enpresakoek.

## Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastasuetara heltzeko: bezero guztiak dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiak dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Gipuzkoan, Arrasaten eta Anoetan biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa.

943-90 34 50 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

## Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera:

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena



Alberto Elizburu, Leire Elizburu eta Jose Ramon Salegi, *Txiki* eta *Alegre* idiekin.

# Itzainak: oraina eta geroa

Zeregin garrantzitsua dute domekan, abenduaren 24an, *Txikik* eta *Alegrek* Sorluzen: Mari Domingiren eta Olentzeroren gurditik tira egitea. *Txikiren* arrimura ipiniko dute Galizatik Euskal Herrira apirilean iritsi zen *Alegre* idi gaztea, hain justu, *Txikik* duen hiru urteko eskarmentua lagungarri izan dadin harendako, halako egun zalapartatsuan. 1.000 kilo pasako “motorra” izango du, bada, Mari Domingiren eta Olentzeroren gurdia etzi, domekan.


ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI, LEIRE ELIZBURU ETA UBANE MADERA** TESTUA: **UBANE MADERA**

Bien bitartean, Angiozarrera bidean bizi dira idiok, ondo zainduta, ukuiluan lagun dituztela beste bi idi: *Txato* eta *Prenda*. Galizako arrazakoak guztiak, gaztetan ekarri eta bertan hazitakoak dira. Sorluzera etorritakoen artean, 12 urte ditu *Txikik* eta *Alegre* ia bi.

## Itzainak

Lau idion arduradunak edo itzainak, *Belarreta* izenpean, Elizburu-Salegitarrak dira: Alberto Elizburu (*Itsaso* baserria, 1950), Leire Elizburu (Sorluz, 1988) eta Jose Ramon Salegi (Bergara, 1955). Tradizioak markatutako bidetara eutsi diote, ahalegin handiarekin

eta afizioak ematen duen indarrari esker: “Nik tradizioa daukat, gure aitaita zena (Olatzkoa, Lasturkoa izatez), aita (Lasturkoa, Larreta probalaria) eta neu; itzainen hirugarren belaunaldia gara. Hau afizioa da, afizioa ez bada, alperrik da. Hemendik ezin daiteke bizi” dio Jose Ramon Salegik. “Atentzio handia eman behar zaie. Hauek daude oso ondo zainduta: euren beterinarioekin kanpainak, urtero kontrola... Babak, lastoa... jaten dute, 4,5-5 kilo egunean” esan digutenez. “Ekonomikoki ez du merezi. Zailtasunarengatik egiten dugu, beste edozein kirol moduan. Bentaja bat dauka, hori bai: taberna zuloan egon beharrean, hementxe entretenitu



1. Txiki eta Txato Abadiñoko proban aurtengo otsailean.
2. Alberto Elizburu Txiki eta Alegre idiekin Angiozarrera bidean.

eta haize ederra hartzen dugu” gehitu du, barrez, Albertok.

Izan ere, idiek ez dute, gaur gaurkoz, etekin ekonomikorik ematen. Erakustaldietarako erabiltzen dituzte (Gaztañerren, adibidez) eta zera kontatu digute: “lehiaketetan, probatan, ere ibiltzen gara. Urte azkenerako joango gara Debara, gero Berrizen ere egingo da, Abadiñon, Markina- Etxeberrin...”. Horretarako, jakina, idiak entrenatu egin behar direla azaldu digu Salgik: “Entrenatzen ditugu hemen, gurpil bat atzean ipinita. Astean hirutan ordubetea-edo entrenatu behar izaten dira. Gero, probatan, batzuetan, ondo biltzen dira; bestetan, ez hain ondo. Baina ondo prestatuta joateko ahaleginak eginez gero, askotan ondo dabilta”.

### 1800-2000 kilo

Probei dagokienez, lan makala izaten dute idiek, Leire Elizburuk kontatu duen moduan: “1.800 edo 2.000 kiloko

## “Afiziorik ez bada, alperrik da, hemendik ezin daiteke bizi, atentzio handia eman behar zaie”

harritik tira egiten dute. Ordu erdiko txapelketak dira, eta dena dago federazioak kontrolatuta. Ibiltzen dira bi itzain (karretero bat aurrean eta bi atzean). Lehiaketan Idi bikoteak 1.100 kilotik gora pisatzen duenean, pasatu den kilo bakoitzeko kilo eta erdiko gainkarga jasotzen du. Txapelketan kontua da ordu erdian plazan zeinek buelta gehiago egin. Erakustaldian, normalean, hogeit minutukoa izaten da”.

### Erreleboa

Denetik egiten dute, bada, *Belarreta* etxeko idiek. Eta transmisioa, behintzat, berमतuta dute; haiekin gustura asko ibiltzen baita Leire Elizburu gaztea; kontrakorik ez bada, Elizbururekin erreleboa ziurtatuta dago:

“Gustatzen zait, etxetik datorkit idi-zaletasuna. Aita jaio zen *Itsaso* baserrian idiak zeuden, eta tiok ere eduki ditu. Zaletasun hori etxetik datorkit eta gustura bizi dut”. Nahiz eta halako lanetan bere adineko gazte askorik ez izan, batzuk egon badaudela dio Soralezuko gazteak: “Ez dizut esango asko ikusten denik probetan, baina 20-35 urte arteko batzuk oraindik bagaude probalekutan. Neskak? Gutxi joaten gara, baina beti joaten garenak ibiltzen gara, eta gustura. Ni idi-probetara joaten orain dela 10-11 urte hasi nintzen (ikusle modura) eta tiorekin, idiekin, 3-4 bat urte-edo daramat”.

### Dotore Jantzita

Ohi duten moduan, etzi, dotore jantzita ekarriko dituzte idiak Soralezura: antzinako uztarriarekin (*Xanta* izena du haienak) uztartuta, fronterekin begi handiak babestuta, eta artilearekin buru-lepo inguruak estalita, 60 bat urteko sokaz lotuta, eskuz egindakoa berori. Ibilbide osoan haien gidari ibiliko dira Leire eta Alberto, ohi duten moduan, idiekin berba eta berba eginez: “Hauei berba egiten ez bazaie... horixe dakitela zein den zein, alperrik arropa aldatuko duzu, ahotsa segituan harrapatzen dute” dio Alberto Elizburuk. Eta eskaera batekin, idiak ondo zaintzekoa; horixe dute-eta idiek ere gustuko: “Eurekin bazabiltza eta konfiantza ematen badiezu, eta mimatu, ba ondo... baina egurra ematen badiezu, alde”.

ZORION AGURRAK



**Jon Agirre**  
Abenduaren 5ean,  
38 urte. Zorionak!  
Etxekoan partez.



**Nahia Mazorriaga**  
Abenduak 6an, 3  
urte. Zorionak  
txikitina jarraitu  
gure bizitza  
alaitzen.



**Luis Moreno, José Moreno, Ainara  
Rosario Moreno**  
Azaroak 26, 24 eta 10, 83 urte, 53, 2 urte ta  
Zorionak birraitxitza, aitxitza eta loibatxoari!  
Etxekoak.



**Mila eta Itziar Gantxegi Unanue**  
Azaroaren 12 an eta 20an urteak bete  
dituzuelako. Muxu handi bat etxekuen partez  
baina bereziki Zuhara,Sara, Ander eta Xubanen  
partez



**Ikerne**  
Abenduaren 2an, 3  
urte. Muxu handi  
bat, maite zaitugul  
Etxekoak.




**Manex Azkorbebeitia Unamuno**  
Abenduaren 9an, 2  
urte! Zorionak  
poxpolin! Muxutxo  
bat etxekuen partez.



**Alodina Ballesteros eta Alejandro  
Olaizola (†)**  
(1960an) Beti izango zaitut gogoan  
Alodina



**Jare eta aitxitza Inazio**  
Abenduaren 7an eta 16an urtebete eta 78 urte.  
Zorionak etxekoan partez. Muxu handi bana!



**Eki Amuategi Ariznabarreta**  
Abenduak 23an, 10  
urte. Neguan eta  
udan euzkixa beti  
goixan. Etxeko  
guztion partez.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

**605 706 086**

(deitu edo bidali whatsapp-a)

**aldizkaria@pilpilean.com**

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Jaiotakoak**

Mohamad Elared Boulaayoun

**Hildakoak**

Maria Lizarralde Uribe-Echeverria  
Guillermo Alberdi Aramendi

LAN DEIALDIA

**Pil-pileanek administraria behar du**

- **Eskaintzen da:** egunean hiru orduko lana, elkarteko bulegoan, goizez.
- **Zereginak:** fakturazioa eta giza baliabide eta administrazio kudeaketa
- **Eskatzen da:** administrazio lanetan profesionala eta esperientziaduna izatea eta administrazio, enpresa edota ekonomia ikasketak izatea.
- Kurrikulumak aurkezteko epea: abenduaren 22tik urtarrilaren 19ra arte Pil-pilean Euskaldunon Elkartearen Errabal 15, 1 pisua. 20590 Soraluze. 943751304 / 688613698 pilpilean@pilpilean.eus (Arianne)

## DANOBATGROUPEk Euskararen Nazioarteko Egunaren harira zabaldutako lehiaketak baditu irabazleak

Beste urte batez DANOBATGROUPEk *Euskara aldean, erabili lanean* lehiaketan parte hartze zabala lortu da eta Elgoibarko **Esther Lizarriturri** eta **Saioa Arrieta** azkoitiarra izan dira asteburuko egonaldia irabazi dutenak nekazalturismoko etxe batean.

Ariketa web bidez osatzekoa izan da eta bide batez webgunea ezagutu eta Tailerreko Hiztegi Teknikoan kontsultak egin behar izan dira erantzuteko.

DANOBATGROUPEk konpromiso sendoa du gizartearekin, eta hainbat ekimenekin elkarlanean ari da enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala sustatzen eta laguntzen, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala bultzatzen, izaera soziokulturaleko eta asistentzialeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen, eta elkartasuna eta interkooperazioa bultzatzen, bai eta ikerketa eta garapena bultzatzen ere, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak babesten dituzten ekimenen alde eginda.

Bide horretan pausoak gero eta sendoago eman nahia euskararekiko konpromiso sendoa izango du taldeak aurrera begira ere: *Euskara aldean, erabili lanean, etxean, kalean...*



Informazio gehiago:  
**Idoia Bustinduy**  
Komunikazio arduraduna  
[ibustinduy@danobatgroup.com](mailto:ibustinduy@danobatgroup.com)  
Tel.: 630 45 36 82

**Batu  
gaitzala  
egiteko  
gogoak  
2018an ere**



**PIL-PILEAN**